

4. Laborategia

Hurrengo enuntziatuei dagokien Visual Basic-en kodea idatzi (kasu bakoitzean, **FOR** ala **WHILE** aukeratu). **Lehenengo lauen fluxu-diagramak orri batean** idatzi:

1. Eskatu erabiltzaileari hitzak, berak “agur” idatzi arte.
2. Eskatu zenbakiak 0 bat irakurri arte, eta, banaka, hauen karratuak idatzi. Bukaeran emandako zenbakien batuketa pantailaratu.
3. Galdetu zenbat ikasle dauden klasean eta, ondoren, bakoitzaren adina eskatu. Bukaeran, batezbesteko adina pantailaratu
4. Sartu ikasleen adinak banaka (0 sartu arte) eta, ondoren, batez besteko adina pantailaratu.
5. Eskatu notak zenbaki negatibo bat irakurri arte. Bukaeran, esan ehuneko zenbat gaindituta zegoen eta batezbesteko nota.
6. Eskatu zenbaki errealak, negatibo bat irakurri arte. Ondoren, esan 0 zenbakia zenbat aldiz irakurri den.